

Lehen Hezkuntza

BASOAREN BARRUAN


 Ekintza

Ingurumen-hezkuntzan, sentitu, ezagutu eta jardun aditzak erabiltzen saiatzen gara. Jarduera honetan, ordea, emozioei egin behar diegu kasu bereziki. Proposamen honek helburu nagusi bat du: ikasleak baso batean barruratzea, eta, bertan, bakarka, baso batean izaki bizien eta bizigabeen artean hauteman daitezkeen sentipen, emozio eta harreman guztiak esperimintatzea eta sentitzea. Edonola ere, irakasleek aldaketak edo etenaldiak egin behar dituzte, edo galderak erantsi, jarduera taldearen adinera eta egoerara egokitzeko.

LANDUTAKO GAITASUNAK

- Autonomia pertsonala eta ekimena.
- Kultura soziala eta artistikoa.

1 IPIN EZAZU ISPILUTXO BAT SUDURRAREN AZPIAN, ETA IBILI (zuhaitzen adaburuei begira)

- Zer dakusazu inguruan?
- Zer atsegin zaizu gehien?
- Eta gutxien?
- Zein kolore dakuskizu?
- Zein elementu ukitu nahi dituzu ingurune horretan?
- Zer zaizu atseginena?



2 ETZAN ZAITEZ LURREAN, ETA MURGIL ORBEL ARTEAN

- Zer entzuten duzu inguruan?
- Zein kolore dakuskizu?
- Ongi zaude?
- Atsegin zaizu usaina?
- Zein elementu edo sentipen zaizu atseginena?
- Beldurrak zaude?



3

**HARTU HOSTO BAT
LURRETIK, ETA AZTER
EZAZU ARRETAZ.
GERO, GORDE ITZAZU
POLTSA BATEAN
IKASLE GUZTIEN
HOSTOAK**

- Zer forma du? Nolakoak ditu ertzak? Osorik ala hautsita dago?
- Zein kolore ditu?
- Leuna ala latza da, ukitzean?
- Zer atsegin zaizu gutxien?
- Zein usain adi ditzakezu?
- Zein sentipen dakarzkizu gogora? Atsegina, ederra, erakargarria, konfiantza, ala, aitzitik, desatsegina, itsusia, deskonposizioa, mesfidantza?

4

**ETA HURRENGO
EGUNEAN,
IDENTIFIKA EZAZU
ZEURE HOSTOA**

- Zer iruditzen zaizu, erraza ala zaila izango zaizula identifikatzea?



5

**HARTU ENBOR ZATI
BAT LURRETIK, AZTER
EZAZU, ETA IDATZ
AHAPALDI BAT**

- Zer forma du? Nolakoak ditu ertzak? Badu zulorik? Osorik ala hautsita dago?
- Zein kolore ditu?
- Ukitzean, leuna ala latza da?
- Zein beste gauza gogorarazten dizkizu?
- Ipin iezaiozu izen bat.
- Orain, idatz ezazu ahapaldi bat haiku gisa:

Lehen bertsoa: zeure enborraren izena.

Bigarren bertsoa: izen hori deskribatzen duten hitzak.

Hirugarren bertsoa: Zer dakarkizu gogora enbor horrek?

Laugarren bertsoa: enborra bera, nolakoa da?



6

**BASOAN
ZEURE LEKUA
BILATZEN**

Bila ezazu toki urrun eta bakarti bat, eta eser zaitez bertan.

- Zer dakusazu? Zein kolore dakuskizu? Zein espazio? Zein animalia edo landare ikus edo entzun ditzakezu?
- Bazter menditsua ala laua da? Ikusten duzu gizakiak eraikitako eraikinik? Atsegin zaizu?
- Atsegin zenuke hor bizi zena?
- Zein usain adi ditzakezu?
- Gustura zaude? Nor eramango zenuke horra, hobeto egoteko?
- Espazio horrek gogora dakarzkizun elementuetatik edo sentipenetatik, zein zaizkizu atseginen?
- Ikusi, entzun, ukitu edo usaindu duzun guztitik, marraz edo idatz ezazu beti hor irautea nahi zenukeena.

